


EUSKERA

APIRILA MAIATZA EKAINA 2019



AZKUNA
ZENTROA
ALHÓNDIGA
BILBAO

Bilbao

ARTE BIZIAK / MUSIKA **MAI. 24** (ostr.)

Linn Da Quebrada



Argazkia: Photo_ NubeAbe_ Pajubá

Maiatzean izango dugun proposamen musikala [Linn Da Quebrada](#) da, zuzenean egiten duen Pajubá ikuskizunarekin. Beltza, transexuala, pobrea, homosexuala, 30 urte ere bete gabe izandako minbizi batetik bizirik aterata. Ez dago [Linn da Quebrada](#) aurrez aurre izan ez duen oztopo, zailtasun edo aurreiritzirik. Brasilgo artista honek aurre egin nahi dio heteropatriarkatuari eta agerian jarri nahi du transexualitatea, funk dantzaren bidez.

Horrela aurkezten du bere burua Linn Da Quebradak. Brasilgo buru iraultzaile, interpretatzaile urratzaile eta MC miresgarri hau giza askatasunari buruzko hizketaldi unibertsala berritzen aritu da. Artistak Pajubá LPA aurkeztuko du Az-n. Letrak portugesez daude beti bezala, eta sexualitate falozentristaren kritika zorrotza dira, etengabe egiten baitio aipu besteak baino gehiago dela uste duen arrari, umore-ukitu batez eta taburik ez duen sexualitatez gainezka. <<Musika orainari emandako erantzuna ere bada, eta gure ekoizpen musikala bizi garenari, eraikitzen ari garenari eta eraiki nahi dugunari ematen diogun erantzuna da>> azaldu du Brasilgo artistak.

Pajubá da haren azken lana, crowdfunding kanpaina baten laguntzaz argitara emana, elkarlanaren emaitza baita.

«Jende askorekin aritu naiz hau eraikitzen, nire laneko bazkideak izan direnekin, eta finantzazko laguntza eman didate diskoa atera ahal izateko. Albuma inbertsio kolektiboaren ondorioa da, eta oso harro nago horretaz. Nik uste dut hori dela disko honi gertatu ahal zitzaien gauzarik onena».

////////////////////////////////////

Maiatzak 24, ostirala

21:00

Kulturen Ataria (igerilekuaren argi-zuloaren azpian)

10€ / 8€ Az Txartelarekin
Sarrerak: Infopuntua eta www.azkunazentroa.eus

////////////////////////////////////

FITXA ARTISTIKOA

Linn Da Quebrada eta Jub do Bairro (ahotsa), Dj Pininga eta Badsista (cdj-ak, erritmo-kutxa eta teklatuak) eta Dominique Vieira (perkusioa).

////////////////////////////////////



<https://open.spotify.com/artist/0YG4CSmw7QW2T4TU3NWxAS>



[mclindaquebrada](#)



[mclindaquebrada](#)

Laguntzailea:

